Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Simon Sesma Erezuma

Lekeitio, Bizkaia (1917)

Aurkibidea

Biografia

Arrantzalea, Lekeition jaio eta bizitakoa. Aita ere arrantzale lekeitiarra zuen eta ama Aulestiko Santa Eugeniakoa, "Lauaxeta"ren lehengusina. Kofradiako presidente izateaz gain, arrantzari lotutako karguak izan zituen eta herriko alkate ere izan zen.

Zintak

LEK-079

- **Proiektua**: IRALEren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aurre Azurmendi, Jon - Benedicto, Lurdes - Cuesta, Begoña
- **Data**: 1986-02-05
- **Iraupena**: 75 min
- **Euskarria**: VHS Standard
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Kargu politikoak eta arrantzari lotutakoak

- **Erref**: LEK-079/003
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 00:01:35. **Bukatu**: 00:05:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:
Kofradian zuzendaritzan sartu zen eta harrezkero, lehendakari izan zen hainbat urtez. Kargu politikoak eta arrantzari lotutako beste hainbat kargu izan ditu.

2. Itsasoan gi gizon galdu zituenekoa

- **Erref**: LEK-079/004
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:05:46. **Bukatu**: 00:10:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
1961ean itsasoan bi gizon galdu zituen, denboralearengatik. Zer gertatu zen kontatzen du.

3. Gau eskolara lehenengo, Donostian ikasketak gero

- **Erref**: LEK-079/005
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:10:36. **Bukatu**: 00:13:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Gaztetxotan, egunez antxoatara joaten ziren eta, gero, gauez, eskolara. Han ikasitakoarekin, irakasleak Donostiara bidali zituen motorista ikasketak egiteko. Makinista eta patroitarako ere han ikasi zuen. Erdaraz pixkanaka ikasi zuen.

4. Lehengo eta oraingo gazteen bizimodua

- **Erref**: LEK-079/006
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gaurko gazteei buruzko iritzia ematen du. Bere gazte garairik onena gerran pasatu zuela dio. Preso eta soldadu ibili zenekoa kontatzen du. Handik etorri eta itsasoan eta eskolan ibili zen.

5. Orduko txikiteoa

- **Erref**: LEK-079/007
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:17:05. **Bukatu**: 00:18:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Zigarrorik eta txikitorik ez zuen ezagutu nagusitu arte. Bere lagunak izendatzen ditu. Tabernetako ohitura zen lagun artean pinta-erdi ardo elkarrekin edatea.

6. Antxoatan egiteko teknika aldaketa

- **Erref**: LEK-079/009
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:19:18. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:
Antxoatan zelan egiten zuten azaltzen du: izurdeen bila ibiltzen ziren, haiek antxoa gora noiz eramango zain. Gauez antxoak distirarengatik arrantzatzea debekatuta zegoen baina batzuk joaten ziren, eta pixkanaka gero eta gehiago hasi ziren.

7. Antxoa oso merke saltzen zen

- **Erref**: LEK-079/010
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:25:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:
1931n baporea egin zuen bere aitak eta lehenengo egunean hamabi mila eta bostehun kilo antxoa arrantzatu zituzten. Oso merke saltzen zen. Pasarte bat kontatzen du.

8. Antxoarentzat kupoa

- **Erref**: LEK-079/011
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:25:00. **Bukatu**: 00:29:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:
Antxoa gauez distirarengatik arrantzatzen hasi zirenean, gehiago harrapatzen zuten lehen baino, baina arrain gutxi botatzen zuten uretara atzera. 1960an Santoñan egindako bilera batean erabaki zuten kupoak ipintzea antxoari. Eztabaida handia sortu zen. Gertaeren azalpen zehatza ematen du.

9. Arrantzaleen arteko elkartasuna antxoarekin

- **Erref**: LEK-079/012
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:29:45. **Bukatu**: 00:31:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:
Itsasoan elkartasunez jokatu dute antxoarekin. Kupoak mugatutakoa baino gehiago jasoz gero, beste bati ematen zitzaion; hasieran, kofradiari.

10. Atuna kanaberarekin

- **Erref**: LEK-079/013
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:31:13. **Bukatu**: 00:34:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:
Frantsesak, japoniarrei ikasita, atuna haztegietan kanaberarekin arrantzatzen hasi ziren. Gero beraiek ere hasi ziren teknika hori erabiltzen. Joera beti izan da flota handitzekoa, barku handiagoak egitekoa.

11. Baporea egiteko asmoa bertan behera

- **Erref**: LEK-079/014
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:36:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:
Umetan, Lekeitioko itsasontziak beladunak izaten ziren. Aitak patroi moduan eta bere baporearekin egindako ibilbidea kontatzen du. Berak baporea egiteko asmoa bertan behera laga zuenekoa kontatzen du.

12. Kooperatiben sorrera eta beherakada

- **Erref**: LEK-079/015
- **Iraupena**: 0:05:25. **Hasi**: 00:36:56. **Bukatu**: 00:42:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:
Kooperatibak egin zituzten arrantzaleek baina kudeaketa txarrarengatik, asko desagertu zirela dio. Madrilen Itsasoko Gizarte Institutuko almirantearekin bilera egin zuten Ondarroako presidenteak eta biek, itsasontziak enbargatu nahi zizkietelako.

13. Isunak arrantzaleei

- **Erref**: LEK-079/018
- **Iraupena**: 0:05:27. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:53:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:
Kofradiako presidente izanda, isuna jarri behar izan die zenbait baporeri arauak ez betetzearren. Batetik, beste egun bateko antxoa egunekoa moduan saltzen saiatu zenekoa kontatzen du; bestetik, itsasontziko txibatoak baimenik gabe kendu zituztenekoa.

14. Kofradien sorrera eta funtzioa

- **Erref**: LEK-079/019
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:53:27. **Bukatu**: 00:56:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:
Kofradiak zelan sortu ziren kontatzen du. Ea dela porturik zaharrena irakurri izan du. Arrantzaren garapena azaltzen du.

15. Arrainaren salmenta zelan egiten den

- **Erref**: LEK-079/020
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:56:06. **Bukatu**: 00:59:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Arraina zelan saltzen den azaltzen du pausoz pauso. "Benta kantatzen hasi da", esaten zuten.

16. San Pedro eguneko ospakizunak

- **Erref**: LEK-079/021
- **Iraupena**: 0:05:56. **Hasi**: 00:59:21. **Bukatu**: 01:05:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Kofradiak San Pedro egunean ospakizunak egin izan ditu, baina aldaketak egon dira. Kaxarranka kenduko balute, presidentetza lagako lukeela esan zien arrantzaleei. Kaxarranka egin beharreko egunean, norbaitek txistera eta bandera lapurtu zituen. Bere zapia eta txapela erabilita egin zuten dantza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-05

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com